

Egoeraren Azterketa




Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ **Hazkunde ekonomikoaren ondoz ondoko hamalagarren urtea**
- ✓ **1995etik honako prezio-igoerarik handiena**
- ✓ **Urte txarra langileentzat**
- ✓ **Gizarte-zerbitzuei buruzko arau berriek ez dakarte aurrerapausorik**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2007	12 HILE LEHEN.	2006 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	07 IV	73,5	74,0	73,2
"27-EBn	%	07 III	70,9	70,3	70,0
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	07 IV	1.282.300	1.273.500	1.256.400
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	07 IV	1.035.900	1.021.500	1.017.900
ALDI BATERAKO TASA	%	07 IV	28,2	29,3	28,0
"27-EBn	%	07 III	14,8	14,6	14,2
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	07 IV	73.700	84.900	84.900
LANGABEZI TASA	%	07 IV	5,4	6,3	6,3
"27-EBn	%	07 III	7,0	7,9	8,9
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	07 IV	15,2	19,1	17,6
"27-EBn	%	07 III	15,5	16,7	18,2
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	07 IV	7,0	8,9	7,9
"27-EBn	%	07 III	7,7	8,7	9,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-ABE	1.121.729	1.094.469	1.036.103
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-ABE	104.633	107.739	76.776
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	07 URT-ABE	509	392	526
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-ABE	8.634	6.748	10.165
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-ABE	62.039	65.496	66.759
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	07 URT-ABE	106	103	112
ESKAINZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	07 URT-ABE	2,8	3,9	2,6
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	07 URT-IRA	2,8	4,5	-0,1
BPGa EAEn	% ALD.	07 IV	3,6	4,0	4,3
BPGa NAFARROAn	% ALD.	07 IV	3,4	4,1	3,4
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	07 IV	3,5	4,0	3,7
BPGa 27-EBn	% ALD.	07 IV	2,6	3,5	2,1
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	07 ABE	4,2	2,7	3,7
" 27-EBn	%	07 ABE	3,2	2,2	2,1
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, EIN.					
2008/02/26an eguneraturiko informazioarekin			109. zbk. Egoeraren Azterketa 2008ko Martxoa		



Aurkibidea

SARRERA 3

EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA 4

1. Hazkunde ekonomikoaren ondoz ondoko hamalagarren urtea..... 4

2. Enpleguari buruzko adierazle negatiboak 4

3. 1995etik honako prezio-igoerarik handiena..... 7

4. 2007a: urte txarra langileentzat 7

PUNTAKO GAIA 9

Gizarte-zerbitzuei buruzko legeak EAEn eta Nafarroan 9

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEE	Nafarroako Estatistika Erakundea
EIN	Estatistika Institutu Nazionalea

EGOERAREN AZTERKETA

Sarrera

Egoeraren Azterketa honetan, 2007ko urtealdiari buruzko balantzea egingo dugu, 2006ko datuekin erkatuz ere. Ikusiko dugunez, ekonomiak izan duen hazkundera gorabehera, 2007ko ekitaldiaren gaineko balorazioa negatiboa da langileentzat. Puntako gaitan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan gizarte-zerbitzuen inguruko lege-garapenean ageri diren gabeziak aztertuko ditugu.

** Txosten hau 2008ko otsailaren 26an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

1. Hazkunde ekonomikoaren ondoz ondoko hamalaugarren urtea


2007a ere ekonomiaren hazkunde-urte gisa finkatu da. Beraz, Hego Euskal Herriko (HEH) ekonomiak ondoz ondoko hamalau urte daramatza hazten.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) **Barne Produktu Gordinak** %3,9ko hazkunde izan du 2007an (lehenengo bi hiruhilekoetan %4,1, hirugarrenean %3,8 eta laugarrenean %3,6). Nafarroako BPGak, bestalde, %3,8ko hazkundearekin amaitu du urtea, lehenengo hiruhilekoan %4,2, bigarrenean %4, hirugarrenean %3,8 eta azkenekoan %3,4 hazita.

Dena dela, 2007ko hazkunde hori aurreko ekitaldietakoa baino txikiagoa izan da, 2006ko BPGa, EAEn %4,2 eta Nafarroan %3,9 handitzen eta.

Inguruko lurraldeetan ere, hazkunde ekonomiko urte gisa itxi da 2007a. Zehazki, Espainiako Estatuko BPGa %3,8 hazi zen 2007an, eta 27-EBkoa %2,9.

BPGaren URTEARTEKO HAZKUNDEA. NAFARROA, EAE ETA ESPAINIAKO ESTATUA (%). 2001 - 2007



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta Estatistika Institutu Nazionalea

Industriako adierazleek, halaber, urtearen gaineko balantze positiboa agertzen dute. EAeko Produkzio Industrialaren Indizeak %2,8ko igoeraz itxi du urtea. Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizeak, berriz, 2007ko urtarriletik irailera bitartean izan zuen %2,8ko hazkundera.

Ekonomiaren inguruko datu positibo horiek, ordea, ez dituzte langileen bizi-baldintzak hobetu. Ondoren ikusiko dugunez, kontrakoa gertatzen ari dela ere esan liteke.

2. Enpleguari buruzko adierazle negatiboak

• Lanpostu gutxi sortu dira

2007ko hazkunde ekonomikoak ez du eragin onuragarrikerik izan enpleguaren sorreran.

Modu horretan, **lanean dabilen biztanleria** oso-oso gutxi hazi da aurreko urtearen aldean. Zehatz esateko, 2007an, lanpostua duten biztanleak 1.282.300 izan dira, hau da, 2006an baino 8.800 pertsona gehiago, besterik ez (%0,7 gehiago).


Langabezia-tasaren murrizketa (2006ko laugarren hiruhilekoko %6,3tik 2007ko %5,4ra) biztanleria aktiboa urritu izanak azaltzen du batez ere. Izan ere, **jarduera-tasak** puntu erdiko jaitziera izan du 2006koarekin alderatuta. Horrela, 2007ko laugarren hiruhilekoan, lanpostua zuten edo lanpostu bila zebiltzan biztanleen portzentajea %73,5ekoa izan zen, 2006an %74koa izanik.

• Sinatutako kontratuetatik %90,7 aldi baterakoak dira oraindik ere

Zifra horrek gehikuntza adierazten du 2006ko datuekiko, urte horretako behin-behineko kontratuak guztizkoaren %90,2 izan ziren eta.

2007an sinatu diren 1.121.729 lan-kontratuetatik 1.017.096 (%90,7), hain zuzen, aldi baterakoak izan dira.

Aldi baterako kontratuen tipologia aztertuta ikus daitekeenez, kontraturik ohikoena ekoizpen-beharretarako behin-behineko kontratua izan da (%39,1), eta horren ostean, obra- edo zerbitzu-kontratua (%32,5); bitarteko kontratua aurreko bi motak baino askoz gutxiago era-



bili da (%17,2), eta are gutxiago praktika-kontratua (%0,8), txanda-kontratua (%0,6), erretiro partzialeko kontratua (%0,5), bestelako kontratuak (%0,3), gaitasun urrikoen aldi baterako kontratua (%0,1) eta 64 urterekin jubilatutako en ordezkotza-kontratua, hondar-pisua baino izan ez duena.

Gizonen aldi baterako kontratuak aztertzean agerienez, portzentajea batez bestekoa baino txikixeagoa da (%89,8). Gizonen kasuan, aldi baterako kontraturik ohikoena obra- edo zerbitzu-kontratua da (%39,9) eta, hurrengoak, ekoizpen-beharretarako behin-behineko kontratua (%39,4), bitarteko kontratuen pisua (%7,7) batez bestekoa baino nabarmenki urriagoa delarik.

Emakumeei dagokienez, aldi baterako kontratuen portzentajea batez bestekoa baino handixeagoa da (%91,4); kontratu motarik ohikoena ekoizpen-beharretarako behin-behineko kontratua da (%39), eta hurrengoak, bitarteko kontratua (kasu honetan askoz pisu handiagoa hartzen du, guztizkoaren %26,2 dagokio eta) eta obra- edo zerbitzu-kontratua (%24,4).

Sinatu diren kontratu guztietatik 104.633 baino ez dira mugagabeak izan, guztizkoaren %9,3 alegia. Kontratu mugagabe erabiliena mugagabe bihurtutakoa izan da (%4), bigarrena kontratu mugagabe arrunta (%3,8), hirugarrena kontratazio mugagabea sustatzeko kontratu mugagabea (%1,4) eta azkena gaitasun urrikoen kontratua, hondar-pisua besterik ez dutena.

Gizonezkoen kasuan, ordena bera ageri da berriro, mugagabe bihurtutako kontratuak %4,7, mugagabe arruntak %4,1 eta kontratu mugagabeak sustatzeko mugagabeak %1,3 izan direlarik.

Emakumeei erreparatuz, ostera, kontratu mugagabe erabiliena mugagabe arrunta da (%3,6), eta hurrena, mugagabe bihurtutakoa (%3,5).

SINATUTAKO KONTRATUAK (%). HEGO EUSKAL HERRIA. 2007

	Guztira	%	Giz. %	Em. %
EKOIZPEN-BEH. BEHIN-BEHIN.	438.487	39,1	39,4	39
OBRA- EDO ZERBITZU-KONT.	357.414	31,9	39,9	24,4
BITARTEKO KONTRATUA	192.561	17,2	7,7	26,2
PRAKTIKA-KONTRATUA	8.858	0,8	0,3	0,7
TXANDA-KONTRATUA	6.232	0,6	0,8	0,3
ERRETIRO PARTZIALEKO KONT.	5.598	0,5	0,8	0,2
BESTELAKO KONTRATUAK	3.881	0,3	0,4	0,3
PRESTAKUNTZA-KONTRATUA	2.761	0,2	0,3	0,2
GAITASUN URRIK. ALDI BAT. KONT.	1.211	0,1	0,1	0,1
64 URTEREKIN JUBIL. ORDEZ.-KONT.	93	0,0	0,0	0,0
ALDI BATERAKOAK	1.017.096	90,7	89,8	91,4
MUGAGABE BIHURTUTAKOA	45.363	4	4,7	3,5
MUGAGABE ARRUNTA	43.079	3,8	4,1	3,6
KONT. MUGAG. SUSTATZEKO MUG.	15.652	1,4	1,3	1,5
GAITASUN URRIKOEN KONTRATUA	539	0,0	0,1	0,0
MUGAGABEAK	104.633	9,3	10,2	8,6
GUZTIRA	1.121.729	100	100	100

Iturria: INEM

Zifra horiek kontratazioan egiten den iruzur itzela gordetzen dute ezkutuan. Hauxe da, beraz, atera daitekeen ondorioa: azken lan-erreformak erabat baliogabeak izan dira kontratu mugagabeak ugaritzeari begira. Are gehiago, 2007ko kontratu mugagabeak 2006koak baino gutxiago izan dira (%9,3 eta %9,8, hurrenez hurren). Datuok argi erakusten dute beste norabide bateko ekimenak abian jarri behar direla, bidezko ezein arrazoik justifikatzen ez dituen behin-behineko kontratazioei zehapen justuak ezartzeko lan-ikuskapenak, esaterako.

- **Behin-behinekotasuna egiturazkoa da**

Behin-behinekotasun izugarriak lan-merkatuko arazo handietako bat izaten jarraitzen du.

2007ko laugarren hiruhilekoan, **behin-behinekotasun tasa** %28,2koa izan zen, 27-EBko %14,8ko batez bestekoaren aldean.

Lan-erreformak sinatu dituzten erakundeek (CCOOK, UGTk, CEOEk eta Espainiako Estatuko Gobernuak) fenomeno kezagarritzat aurkezten dute behin-behinekotasuna. Aitzitik, datuek frogatzen dutenez, erreforma horiekin lortu nahi duten helburua ez da behin-behinekotasuna murriztea.

2006ko laugarren hiruhilekoarekiko 1,1 puntu jaitxi den arren, 2007ko ekitaldiko behin-behinekotasuna 2005ekoa baino handiagoa izan da (%28,2 eta %28, ondoz ondo), eta kolektiborik ahulenak, hau da, emakumeak eta gazteak, jo ditu bereziki. Izatez, 16 eta 24 urte bitartekoan adin-tartean, %68koa izan zen behin-behinekotasuna 2007ko laugarren hiruhilekoan, eta emakumeen kasuan, %33,2koa.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAREN BILAKAERA (%) . 2005eko, 2006KO ETA 2007ko IV. HIRUHILEKOAK. HEGO EUSKAL HERRIA

	2005	2006	2007
Behin-behinek. T.	28	29,3	28,2
Gizonen behin-behin. tasa	24,1	25,3	23,9
Emakumeen behin-behin. tasa	33	34,1	33,2
16-24 urtekoen behin-behinek. tasa	71,1	64	68
25-34 urtekoen behin-behin. tasa	37,1	38,6	35,3

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala


• Generoko diferentziak

Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestatik (BAI) ateratzen diren datu eta ratio guztietan, argi ikusten da emakumeek oraindik ere gizonen baino baldintza txarragoak jasan behar dituztela lan-merkatuan.

Jarduera-tasan eta langabezia-tasan jasotako zifrek egiaztatu egiten dute **emakumeek nozitzen duten bereizkeria**. Horri, gainera, behin-behinekotasuna gehitu behar zaio, aurreko atalean ikusi dugun moduan.

Hortaz, 2007ko laugarren hiruhilekoan, gizonen jarduera-tasa %82koa izan zelarik, emakumeena %64,8ra baino ez zen heldu. Antzeko zerbait jotzen da langabezia-tasari dagokionez, emakumeena %7koa baita, gizonen %4,2koaren aldean.

JARDUERA, BEHIN-BEHINEKOTASUN ETA LANGABEZIA TASAK (%), GUZTIZKOA, GIZONENA ETA EMAKUMEENA. 2007ko IV. HIRUHILEKOAK



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

Beraz, generoko ikuspuntutik ere ezin da esan 2007a urte ona izan denik eta, zentzu horretan, nabari-nabaria da oraindino lan-merkatuko genero-diferentziak amaiarazteko ekimenak garatzeko premia.


• Lan-istripuak: onartu ezinezko zifrak

Iturri ofizialen arabera, 2007an baja eragin duten 62.039 lan istripu jazo ziren HEHn, aurreko urtearekiko 3.457 baino gutxiago.

Aitzitik, ELAko Lan Osasun arloaren datuen arabera, lan istripuetan jazo diren hildakoak 106 izan dira, aurreko urtea baino hildako gehiago (103 hildako).

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea arazoa zuzentzeko erabat alferrikakoa suertatu da. Enpresaburuen mozkinak langileen segurtasunaren eta osasunaren aurretik jartzen segitzen dute. Lan-istripu sarrien arrazoi nagusiak behin-behinekotasun eta azpikontratazio handiak dira, lan-erritmo bizkorrekin eta segurtasuneko eta lan-osasuneko inbertsio hutsalekin batera.

2007ko datuek berriro frogatzen dutenez, administrazioen eta enpresari-elkarteen utzikeria agerikoa da, arazoari aurre egiteko moduko neurriak ezartze aldera. Bien bitartean, Hego Euskal Herriko ehundik gora langilek galdu dute bizia lanean zebiltzala.



- **Enplegu-erregulazioak %28ko gehikuntza izan du**

2007an, enplegu-erregulazioa areagotu egin da. Izan ere, 2006an, enplegua erregulatzeko 361 **fitxa baimendu** ziren, eta 2007an, berriz, 509ra iritsi da kopurua.

Gehikuntza horrek zuzeneko eragina izan du enplegu-erregulazioak kaltetutako pertsonen kopuruan. 2007an, zehazki, 8.634 langile izan dira enplegua erregulatzeko fitxen ondorioak jasan behar izan dituztenak, hots, 2006an baino 1.886 lagun gehiago.


3. 1995etik honako prezio-igoerarik handiena

2007ko ekitaldia amaitzean, **Kontsumoko Prezioen Indizea** %4,2an zegoen.

Portzentaje hori 1995etik honako handiena da. Horrez gain, bilakaera ere oso kezkarria da, osoaldi laburrean izugarri igo da eta.

Aurreko Egoeraren Azterketan (108 zenbakiduan), urriko datua aurkeztean, 1997tik aurrerako prezio-igoerarik handiena zela esan genuen. Oraingoan, ordea, 1995eraino jo behar izan dugu atzera, 2007aren amaierakoa bezain datu negatiboa aurkitzeko.

KPIaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (%). ESPAINIAKO ESTATUA. 1995eko ABENDUA - 2007ko ABENDUA



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

Prezioen igoera esnean, ogian eta oinarrizko beste hainbat produktutan hautematen ari da batik bat. KPIak premia biziko janarietan duen inpaktuaren ondorioz, baliabide gutxien dituen jendearentzat suertatzen da larrien igoera, pertsona horien erosahalmena gero eta murriztagoa delako.

Ezinbestez, prezioen gorakadak, isla izan behar du langileen soldatetan, bestela erosahalmena galtzen jarraituko dugu eta. Horregatik, negoziatio kolektiboan, aurreko urteko KPIa hartu behar da aintzat, soldatak finkatzerakoan.

4. 2007a: urte txarra langileentzat

Azterlan honen lehenengo atalean aurkeztutako **hazkunde ekonomikoa** eta bigarren atalean aztertutako adierazleak erlazionatzean, argi ageri da langileriarentzat kaltegarriak diren zutabeek eusten diotela ekonomiaren hazkundeari.

Enpleguaren kolokatasuna ez da urritu; behin-behinekotasuna Europakoaren bikoitza da; lan-istripuei buruzko datuak negargarriak dira, eta gero eta langile gehiagok jasan behar dituzte enplegu-erregulazioen ondorioak.

Esandakoari **aberastasunaren gero eta bana-keta bidegabeagoa** erantzen badiogu, nabarmen ikusten da pertsona gutxi batzuek dirutza itzelak egiten dituztela biztanle gehienek kaltean.



Horren froga dugu 2007an hazkunde ekonomikoak (Hego Euskal Herrian %3,5 ingurukoak) ia lan-sorrerarik eragin ez izana. Ekonomia hazi delarik enplegurik ia ez sortzeak halabeharrez eragin behar izan du produktibitatearen hazkundea. Baina, hala eta guztiz ere, produktibitatearen gehikuntzak ez du soldaten igoera ekarri.

Esandakoaren arabera, eta egiaztapen ofizialen zain, 2007an, lan-errentek berriro galdu dute pisua, kapital-errenten eta enpresarien errenten alde. Zoritxarrez, aberastasunaren banaketako pisu-galtze hori iraunkorra izan da 1993tik aurrera.

Bestalde, **soldaten geldialdia** are larriagoa da KPlaren igoeraren eraginez. Hirugarren ataleko datuek erakusten dutenez, **prezioen igoerak** batez ere baliabide gutxien dituen jendeari egiten dio kalte.

Hortaz, inolako zalantzarik gabe baieztatu dezakegu 2007a urte txarra izan dela langileentzat.



Gizarte-zerbitzuei buruzko legeak EAEn eta Nafarroan

Bai Nafarroan, bai EAEn, gizarte-zerbitzuei buruzko arautegi berria garatzen ari da. Bi lurraldeotako egoerak ezberdinak dira, hala ere:

- Nafarroan, 2006ko abenduan onartu zen legea, eta gaur egun Gizarte Zerbitzuen Zorroa prestatzen ari da.
- EAEn, Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege Proiektua prestatu da, eta hori onartu ondoren hasiko da taxutzen Gizarte Zerbitzuen Zorroa.

Dena dela, hemen aztertzen saiatuko garen hainbat elementu erkide dituzte bi legeok:

Elementu erkideak:

1. Ez dakarte aurrerapausorik, eskubideen aintzatespenean:

Bi legeak iradoki zituzten printzipioen arabera, gizarte-zerbitzuetarako irispidea eskubide subjektiboa da. Printzipio hori, ostera, legeek eurek hutsaltzen dute, eskubidea aintzateste-ko, hainbat baldintza betetzea exijitzen da eta (baldintza guztiak ez dira zehatz azaltzen, gainera). Menpetasun-egoeran dauden pertsonen gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren estaldura lortzeko duten eskubidea ez da batere zehazten.

Aitzitik, ordainkidetza ezartzen da, erabiltzaileari zerbitzuaren truke ordainarazteko. Ordainkidetzaren nondik norakoak ere ez dira azaltzen baina (ustez, zorroan zehaztuko ei dira).

Hori gutxi balitz, EAEn, zorra ezin ordaintzera, erabiltzailearen ohiko etxebizitza aipatzen da zor-aitorpeneko elementu gisa.

2. Ez dute estaldura unibertsalik eskaintzen eta, gainera, bereizkeriaz jokatu eta neurritz

kanpo mugatzen dute Europako Erkidegotik kanpoko etorkin gehien irispidea.

EAEn, eroldan urtebetez egotea exijitzen da, baina airean uzten da gehiago murrizteko aukera, legeak diotenaren arabera, zorroan, zenbait zerbitzu edo prestazio jaso ahal izateko, eroldan denbora luzeagoa eramatea eta beste baldintza gehigarri batzuk betetzea exijitu ahal izango direlako.

Nafarroako legea are urrunago doa, eta zuzenean uzten ditu kanpoan Europako Erkidegotik kanpoko pertsonak (kolektibo batzuetakoak baldin badira edo legeak zehazten ez dituen larritasun, kokatasun eta luzeazintasunaren arabera egingo zaie arreta). Era berean, Europar Batasuneko pertsonen eta erbesteratu, errefuxiatu eta aberrigabeei irispidea mugatzeko aukera ere aipatzen da.

3. Ez da sare publikoaren aldeko apustu egiten: EAEko zein Nafarroako xedapenetan, kalitateko sare publikoaren alde jo beharrean, ekimen pribatua sustatzen da, gizarte-premien bizkar negozioa egiteko atea irekita utziz.
4. Enpresa pribatuetako langileen lan-baldintzak ez dira arautzen. Ez ahaztu emakumezkoak gehiago diren sektore horretako soldadak ez direla mila eurora heltzen eta behin-behinekotasuna %60koa dela.

nguruabar deigarri gisa aipa daiteke EAEn, lehenagoko zirriborro batean, enpresa pribatuetako lan-baldintzak sektore publikoko langileenekin parekatzeari buruzko aipamen generikoa ageri bazen ere, oraingo proiektuan klausula hori desagertu egin dela.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroa

Atal honen hasieran esan bezala, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroa onartzeaz dago. Gizarte-eskubideen inguruan bi administrazioek erakutsi izan duten bateratasuna kontuan hartuta, zentzuzkoa da Nafarroan onartuko den zorroa EAEkoaren oso antzekoa izango dela pentsatzea.

Bada, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroak, kalitateko zerbitzua eskaintzeko moduko sarea finkatu ordez, prestazio ekonomikoen aldeko hautu argia egin du.

Horrez gain, bermatutako zerbitzuen eta bermatu gabekoen arteko bereizketa egiten du, bigarren sail horretan, auzibidez ezin galdatu daitezkeen zerbitzuak sartzen dituelarik, horiek aurrekontu-zuzkiduraren arabera eskainiko direla erantsiz (hala ere, ez legean, ez zorroaren zirriborroan, ez da zuzkidura zehazten).

Goian, ordainkideza aipatu dugunean, figura hori zorroan arautuko zelako aurreustea adierazi dugu. Zorroan, ordea, ordainkidezari loturiko prestazioen zerrenda besterik ez da azaltzen, diru-zenbatekoak, irispidea izateko baldintzak eta bestelako alderdi garrantzitsuak inon ere zehaztu gabe.

Ondorioztapenak:

Finean, esan dezakegu Hego Euskal Herriko gizarte-zerbitzuak arautzeko manu berriek Espainiako Estatuan onartutako Menpetasun Legearen akats berberak dituztela. Besteak beste, kalitateko sare publikoa sustatu beharrean, erabiltzaileei diruzko prestazioak emateko bidea aukeratu dute. Diru-kopuruok, orobat, ez dira inola ere behar bestekoak, eta oso menpetasun-maila altuko pertsonen bano ez zaizkie emango.

Administrazioek propaganda-bide asko erabiltzen dituzte lege berriek aurrerapen handiak dakartzatela sinets dezagun. Baina, errealitateak frogatzen duenez, erabiltzaileek beren poltsikotik ordaindu behar izango dute kalitateko zerbitzu duinen truke.